



**Arartekoaren 2015R-1114-15 Ebazpena, 2015eko irailaren 8koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari obren eta jardueren proiektu baten gaineko dokumentuak eskuratzeko eskariak erantzuteko gomendatu ziztaion.**

### Aurrekariak

1. Bermeoko bizilagun talde batek Bermeoko Udalak hirigintza informazioa eskuratzeko eskaera bati emandako erantzuna helarazi digu.

Idatzian 2015eko maiatzaren 22ko informazio eskariari egiten diote erreferentzia, Bermeon beira zuntzez indartutako egurrezko eta plastikozko itsasontziak eraikitze eta konpontzeko jarduera eta ontzia gauzatzeko proiektuaren gaineko udal espedientearen izapidetzearen egoerarekin eta hura osorik lortzearekin lotuta.

Bermeoko Udaleko Hirigintza Sailak 2015eko maiatzaren 22ko bere ofizioan emandako erantzunak eskatutako dokumentazioa aurkezteko zain dagoen proiektu tekniko bat dagoela dio. Horrela, adierazi du udalak ez duela dagokion izapidetzeari hasiera eman. Edozein kasutan hartutako ebazpen guztien berri emango diete.

Erantzun hori jaso ondoren, kexagileek idatzi berri bat aurkeztu zuten 2015eko ekainaren 15ean salatuz hormigoï plataformako obrak *“hodiak instalatzen eta materialak deskargatzen”* egiten ari direla. Horregatik, *“egiten ari diren obrekin lotutako lizentzien eta baimenen”* gaineko informazioa eskatu dute.

Bere nahia dokumentazio hori ikustea da, toki administrazio horren esku dagoena. Baita ere ontziolen jardunari hasiera eman diotela salatu dute, dagozkion baimenak izan gabe.

Kexagileek Arartekoarengana zuzendu dira adierazteko ez dutela erantzun gehiago jaso. Hori dela eta, erakunde honen esku-hartzea eskatu dute.

2. Erreklamazio hau izapidetzeko onartu ondoren, Bermeoko Udalari informazioa eskuratzeko eskaria erantzuteko egindako jardunen gaineko eta bereziki, emandako jakinarazpenen gaineko informazioa eskatu diogu.

Bermeoko Udalak 2015eko uztailaren 22an lizentziarekin lotutako jardunen baten berri ematera mugatzen den txosten bat bidali digu. Horrela, honakoa adierazi du: *“honegaz batera bialtzen deusut (...) enpreseak eskatutako obra lizentziaren eta jarduera lizentziaren espedienteen kopia”*. Txostenak, sustatzaileak 2015eko martxoaren 13an Bermeon ontziak eraiki eta konpontzeko industria-nabearentzat klasifikatutako jarduera legeztatze aurkeztutako eskariaren kopia atxiki du.





Hala ere, bidalitako informazioak ez du erreklamazioan adierazitako informazio eskariei ezta emandako udal erantzunari ere erreferentzia egiten.

Informazio hori eta kexaren bultzatzaileak alegatutako beste inguruabar batzuk ikusita eta edukiak aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi nizkizuke.

### Gogoetak

1. Kexa hau pertsona talde batek Bermeoko Udalarari egindako hirigintzari buruzko informazio eskaerari erantzun ez zaiolako aurkeztu da.

Zehazki, erreklamazioak *“beira zuntzez indartutako egurrezko eta plastikozko itsasontziak eraikitze eta konpontzeko jarduera eta ontzia gauzatzeko proiektuaren”* izapidetzearekin lotutako espedientearen eduki osoaren informazioa eskuratzeari egiten dio erreferentzia. Era berean, horretarako jarraitutako hirigintza eta ingurugiro espedientearen interesa duen parte bezala kontuan izateko eskatu dute.

Ararteko erakundeak aurrekarietan azaldutako kudeaketak egin ondoren, ikusi du ez dagoela kexagile taldearen asmoari emandako erantzunik. Aipatutako erantzun bakarra 2015eko maiatzaren 22ko ofizioa da. Bertan, espedientearen egoeraren berri ematen, ez dio aurkeztutako proiektu teknikoan dagoen dokumentazioa eskuratzeari erantzuten.

Edozein kasutan, ez dago 2015eko ekainaren 15eko idatziaren erantzunik. Bertan, hormigoizko plataformako obren salaketarekin batera, aipatutako espedientearen gaineko informazio eskaria errepikatu dute.

2. Orokorrean, herri-administrazioek interesdunek egiten dituzten eskariei erantzun zehatza emateko duten betebeharra gogorarazi beharra dago, azkartasun, bizitasun eta eraginkortasunez, eta egindako eskariaren edukiarekin bat.

Aurkeztutako idatzien helburua zen, ustez dagokion administrazio baimenik gabe obren hasiera salatzearekin batera, ontziak konpontzeko industria-nabe baten eraikuntza proiektuarekin lotutako espedientearen dagoen dokumentazio guztia eskuratzea.

Erantzun bat ematea galarazi duten arrazoiei kalterik egin gabe, ezin dira alde batera utzi herritarrek administrazio on bat izateko duten eskubideak sortutako betebeharrak, kasu honetan eskariaren jaso izanaren agiriaren eta epe egoki batean erantzuteko betebeharrean zehazten direnak.

2015eko maiatzean Bermeoko Udaleko hirigintza sailak emandako erantzunak, espedientearen egoeraren berri ematen badu ere, ez du talde kexagilearen nahia erantzuten.





3. Hirigintzako informazioaren kasuan, zehaztu beharra dago eskubidea lurzoruari buruzko legearen testu bategina onetsi duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegilearen 4. artikuluan eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 9. artikuluan jaso dela.

Eskubide honen gauzatze zehatzari dagokionez, dokumentazioa lortzea osagarriak diren bi mekanismoen bidez egin daiteke: udal planeamenduaren eta beste administrazio jardunen azterketa materiala eta zuzena eta zuzeneko informazioa aukeratutako komunikabidearen bidez bidaliz. Halaber, informaziorako eskubide horrek berekin dakar planak eurak osatzen dituzten agirien kopia eta haiek izapidetu diren hirigintza-espedientei buruzko agiriak eskuratu ahal izatea.

Bestalde, orokorrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 eta 37. artikuluetan ezarritakoaren arabera erregulatzen dira espedienteen eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskariak.

Zehazki, 35. artikulua herritarrek *“informazio publikoak, artxiboak eta erregistroak”* eskuratzeko duten eskubidea aitortzen du. Indarrean dagoen 37. artikulua arabera, *“Herritarrek informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea dute Konstituzioan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legean eta aplikatu daitezkeen gainontzeko legeetan xedatu moduan eta bertako baldintzak kontuan hartuta.”*

Indarrean dagoen gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko prozedura erregulatzen du. Zehaztu beharra dugu lege hori ez dela berehala indarrean sartuko, pixkanaka-pixkanaka baizik, eta toki-administrazioen kasuan, epe hori 2015eko abenduaren 11 baino lehen egokitu beharko dela.

Ingurugiroaren informazioaren kasuan, udalak aipatutako jarduera lizentzia emateko espedientearen kasuan bezala, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako prozedura aipatu behar da. Horren bidez, ingurugiroaren informazioa, parte-hartze publikoa eta ingurugiroaren arloko justizia eskuratzeko eskubideak erregulatzen dira.

Administrazio legegintza honek, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea errazteko helburuz, prozedura arin bat ezartzen du, erantzuteko epe labur batekin. Horrela, legeak uste du eskaria gehieneko hilabete bateko epean ebatzi behar da.

Edozein kasutan legegintzak sekretu profesionalari, industria jabetzari edo intimitate eskubideari eta izaera pertsonaleko datuei dagozkien mugei berriaz





lotuta dauden muga batzuk ezartzen ditu. Ukapen honek ez du arrazoitutako erantzun bat emateko betebeharrak salbuesten, ebazpenean muga legalen araberrako arrazoi zehatzak adieraziz.

Epeak bereziki laburrak dira informazioa eskuratzeko eskubide horrek tresna izaera daukalako. Administrazio-erantzunaren berehalakotasuna funtsezko premisa bat da parte hartzeko gainerako eskubideak erabili ahal izateko.

Ondorioz, administrazioaren esku dagoen informazioa era azkarrean eta lehentasuna eman ez eskuratu behar da. Horretarako legediak eskariak ebazteko epe batzuk ezarri ditu, erantzun behar duen erregistroan jasotzen denetik hilabeteko epea gainditu behar ez duena, beste hilabeteko luzapena izan ezik, betiere eskatzaileari jakinarazi behar zaiona.

4. Horregatik, herri-administrazioek hirigintzako eta ingurugiroko informazioaren zerbitzua emateko beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar dituzte, erantzun bat emateko premia baldintza horien barruan.

Aurrekoa kontuan hartuz, agerikoa da beharrezkoak diren giza baliabideen gabeziak edo une berean hainbat eskaera bilduta egoteak erantzuna hilabete bateko epean edo luzapena eta gero ematea galarazi dezakete.

Horrek ez du eskatzaileari eskaria jaso izanaren agiria eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikuluan aurreikusitako erantzuteko epearen luzapena jakinarazteko betebeharrak salbuesten.

Era berean, adierazitako legeko betebeharrei kalterik egin gabe, bidalketa hori arintzeko formulak bilatzeko beharra eskatu beharra dago, edo parte-hartze mekanismo alternatiboak eskatu.

Teknologia berriek eta herritarrek zerbitzu publikoak eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2006 Legetik sortutako betebeharrekin dokumentazio hori arinago bidaltzeko lagungarriak dira zalantzarik gabe.

Gure ustez ere garrantzitsua da informazio hori helarazteko formula alternatiboak bilatzea eta hirigintza gaietan interesa duten elkarten parte-hartzea errazteko. Neurri horien artean zuzeneko jakinarazpenak eta administrazioaren eta elkarte horien arteko bilerak edo topaketak aipatu ditzakegu.

Edozein kasutan, formula osagarri hauek ezin dira praktikan gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu egokiari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legetik sortu daitezkeen betebeharren betetzean gutxitze bat sortu, batez ere erreklamazio honetan jasotako kasuetan bezala, non informazioa jasotzeko borondate argia adierazten den.





Kexa-espediente honetan adierazi den bezala, 2015eko apirilean eskaria egin zuenetik hilabete asko igaro ondoren, 2015eko ekainean errepikatu zena, ez da erantzunik jaso dokumentazioa eskuratzea baimendu edo ukatzen duena araudian tasatutako arrazoiren batengatik.

Gauzak horrela, administrazio horrek ez du talde kexagilearen ingurumen eta hirigintzari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidearen ondoriozko eginbeharra bete.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin dugu:

### GOMENDIOA

Gaur egunera arte erantzun bat eman ez badu, berehalako erantzuna emateko talde kexagileak egindako hirigintza informazio eskariari, eskarian aipatutako proiektuaren gainean administrazio horrek duen dokumentazioa eskuratzearen inguruan.

Ordenamendu juridikoan ezarritako epean eta terminoetan, ingurumen eta hirigintzaren gaineko informazioa eskuratzeko egindako eskaerak izapidetu ditzala.

